

1. ARIKETA (7 PUNTU)

Lehenbiziko entzungaiari buruz zazpi galdera dituzu eta galdera bakoitzean aukeratu erantzun egokiena. 0 galdera adibidea da. Audioa bi aldiz entzunen duzu.

Euskadi Irratia: Waldorf pedagogia erabiltzen duen eskola bateko bi irakasleri, Jose Antonio Pagaldairi eta Ainhitze Balentziagari elkarrizketa (7':17")

0. Laugarren ikasturtea eskaintzen ari dira...

- a) *baina aurtengoa dute homologazioarekin ari diren lehen urtea.*
- b) eta dagoeneko ikasketa homologatuak eta kontzertatuak dira.
- c) orain lau urte lortu baitzuten ikasketa homologatuak izatea.

1. Waldorf pedagogia sortu zen...

- a) enpresari batek bere seme-alabei pedagogia hobea eskaini nahi ziolako.
- b) enpresari bati eskola berri bat sortzeko asmoa bururatu zitzaioelako.
- c) filosofo austriar batek eskatuta enpresari batek diruz lagundu ziolako.

2. Pedagogia honen bidez...

- a) haurra, adimenaz gain, beste bi arlotan ere hezten da.
- b) haurraren adimena hiru arlotan garatzen da.
- c) haurraren ekimen indarrak eta sentimenduak berebiziko garrantzia dute.

3. Azterketak direla eta ez direla...

- a) besteak beste, haurrek ariketa liburuxkan idazten dutena hartzen da kontuan.
- b) bezperan ikasitakoa berrikustea izaten da eguneroko lehen ariketa.
- c) idatziz baino gehiago ahoz adierazi behar dute haurrek ikasi dutena.

4. Ikasgaiei dagokienez...

- a) Curriculumak eta ikasleen gutuziak partekatzen dituzte.
- b) Curriculumari ematen diote lehentasuna.
- c) ikasleen unean uneko beharrei begiratzen diote.

5. Eskolako sistema eta etorkizuna.

- a) Batxilerreko ikasketak unibertsitateko sistemara egokituak daude.
- b) Eskola bukatu aurretik egokitze urtea jasotzen dute ikasleek.
- c) Unibertsitateara adibidez, nekez egokitzen dira ikasleak.

6. Ainhitze Balentziaga iritsi zen pedagogia honetara...

- a) andereño lanetan bere ikasleez arduratua zebilelako.
- b) behar bereziak dituzten haurrengana hobeki egokitzen delako.
- c) behar bereziak dituzten hurrekin ez zegoelako gustura.

7. Jose Antonio Pagaldai iritsi zen pedagogia honetara...

- a) bere irakasle lanetan filosofia berri batek erakarri zuenean.
- b) etxeko lanetan zebilela nekazaritza filosofia berria ezagutu zuenean.
- c) nekazaritza espezialitatea utzi eta beste zerbaiten bila hasi zenean.

2. ARIKETA (8 PUNTU)

Bigarren entzungaiari buruz zortzi galdera dituzu eta galdera bakoitzean erantzun zehatza idatzi behar duzu. 0 galdera adibidea da. Audioa bi aldiz entzunen duzu.

Euskadi Irratia: Harkaitz Canorekin "Hil aurreko hitzak" (8':00)

0.Harkaitz Canoren ustez, zenbaitetan, zergatik dira maisulanak epitafioak?

- *Bizitza oso bat esaldi bakar batean laburbiltzen dutelako.*

8.Publizitatearen arabera, benetan garrantzitsua dena gutaz izandako lehen irudipena da. Zein da Harkaitz Canoren iritzia ideia horretaz?

-

9.Zein zen, Borges-en ustez, bekaturik larriena?

-

10.Zer opa zion Brendan Behan irlandarrak ospitalean zaintzen zuen mojarri?

-

11.Hil arte, Oscar Wildek gustu oneko gizona zela erakutsi nahi izan zuen. Zertan nabaritzen da hori bere hil aurreko hitzetan?

-

12.Dylan Thomas marka bat hautsia zuelakoan hil zen. Zein zen marka hori?

-

13.Zer sentimendu adierazi zuten Harry Houdini magoaren azken hitzek?

-

14.Karl Marx-en ustez, nork behar izaten ditu hil aurretik azken hitz batzuk erran?

-

15.Pancho Villaren azken hitzek errukigarriak dira, Harkaitz Canoren ustez. Zergatik?

-